



www.uzturpe.eus



Ikastolako lehen egunetan

Zer dela-eta da egokitzapen prozesua garrantzitsua?

Gizakion berezko joera gertuko testuinguruetara egokitzea da, eta horretarako denbora behar dugu. Helduok, oporren ostean, lanera egokitu behar dugun moduan, haurrek ere tarte bat behar dute eskolako testuingurura egokitzeko, batzuetan guztiz berria delako, beste batzuetan gelaz zein taldez aldatu direlako, eta beste batzuetan denbora asko daramatelako bertara gerturatu barik.

Baina egokitzeaz ari garenean, zertaz ari gara? Egokitzapen prozesuaren oinarrian dagoena **harremana** da. Harremana dagoela diogu, alde batetik, eskolara joatean testuinguru naturaleko gertuko pertsonengandik banatu behar delako, eta, bestetik, eskolara joatean testuinguru berri batean kokatuko diren pertsona berriekin harremana eraiki behar delako. Azkeneko hori kontuan hartuz, **konkista prozesu** moduan definitu ahalko genuke.

Ikerketek adierazten dute haurren ongizatea eta garapena ziurtatzeko ezinbestekoa dela heldu esanguratsu batekin harreman afektiboa eraikitzea. Harreman horren bidez haurra seguru sentitzen bada, bere ingurunea ikertu eta besteekin modu osasuntsuan harremanduko da.

Hezitzaileok ere egokitu behar dugu

Eskolan daudenean hezitzaileek hartu behar dute haurren erreferente segurua izateko ardura.

Hezitzaileak gelan dituen haur bakoitzarekin harremana eraikitzen joan beharko du, eta euren konfiantzazko eta, hilabeteak aurrera doazen heinean, gertuko pertsona izatera heltzea izango du helburu. Horregatik esaten dugu prozesu hori harremanean dagoela oinarrituta eta konkista prozesu bezala irudika daitekeela, hezitzaileak haurra konkistatu behar baitu, bere segurtasun iturri bihurtu behar du.

Zergatik da beharrezkoa haurraren gertuko pertsonen presentzia?

Hezitzaileak ezin du berak bakarrik haurrarekin harremana eraiki, guztiz ezezaguna delako berarentzat. Horretarako, haurraren gertuko pertsonen laguntza behar du izan, gurasoena, aitona-amonena edo dena delakoarena. Haurrak ikusten duenean bere erreferenteak harremana duela hezitzailearekin, konfiantza duela eskolan dagoen heldu berri horrengan, haurra prest egongo da berarekin harremana eraikitzeko. Horretarako, haurrak denbora behar du; ez da egun batetik bestera burutzen den prozesua.



www.uzturpe.eus



Hezitzaileak haur bakoitza konkistatzeko bide ezberdinak esploratu beharko ditu, haurrak askotarikoak direlako, bizitza istorio ezberdinak dituztelako, ezberdin bizi dituztelako banaketa prozesuak, testuinguru berrien aurrean ezberdin erantzuten dutelako, interes ezberdinak dituztelako eta abar.

Gure haurrek aukera bakarra izango dute lehen eskolaratze egoki bat bizitzeko. Esperientzia positiboa izateko, Ikastolako profesionalok haurren erritmoa errespetatzen duten plangintzak egiteko ardura dugu, eta familiak (erreferentziako pertsonak), *etxeko haurrak beharrezkoa duen egokitze denbora eskaintzeko ardura*. Modu horretan, eskolaratzeko esperientzia denontzako momentu magikoa izango da.

Familiok nola lagun dezakezue egokitze aldi hau samurragoa egiten haurrari?

- Ama/aita urduri ikusteak ez dio inongo mesederik egingo, horrela berak daukana handitu besterik ez duzue egingo.
- Haurra bakarrik uzten duzunean segurtasuna transmititu, agurra ez luzatu; Agurtzea oso garrantzitsua da, baina ez dezagun unea gehiegi luzatu; agur esan eta muxu bat ematearekin nahikoa da.
- Hitz egin ezazue zuen semearen edo alabaren hezitzailearekin. Zuen zalantzak eta sentimenduak adieraz diezazkiozue, baina ez haurraren aurrean. Familiaren eta ikastolaren arteko elkarrizketak egon litezkeen mesfidantzak arinduko ditu.
- Konstantzia. Egokitze prozesua hobea izateko, haurrak, jarraian etorri behar du ikastolara. Honek sozializazioari mesedea egiten dio.
- Gelan zaudeten bitartean, irakasleak jarritako banku edo aulkietan eserita egon, irakasleak emandako aholkuak jarraituz. Isiltasuna eskatuko dizuegu, momentu hori haurrari eskainiz (mugikorrek ere ez erabiltzea gomendatzen da).

EKARRI BEHARREKO GAUZAK: haurraren historia adierazten duen argazki bilduma azpian testua idatzirik; familiaren argazki bat; irristatzen ez diren galtzerdiak, aldatzeko jantziak izena jarrita; fardela erabiltzen duenarentzat fardelak, toailita bustiak; aurrean botoiak dituen mantala, jangelarako plastikozko mantala.

Ziur gaude elkarlanean oso ongi joango dela egokitze edo konkista aldi hau. Eskerrik asko zuen arreta eta jarreragatik.

Agur bero bat.